




TRAFIKOKO TXOSTEN MONOGRAFIKOAK



3. zk. EAE-KO ERREPIDEETAN IZANDAKO IN ITINERE ETA MISIOKO ISTRIPUAK

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDEETAN IZANDAKO “IN ITINERE” ETA “MISIOKO” ZIRKULAZIO ISTRIPU BIKTIMADUNEN DIAGNOSTIKOA 2012. URTEA

ITURRIA: ERTZAINZAK ERREGISTRATUTAKO ZIRKULAZIO ISTRIPUEN DATU BASEA

Ertzaintzak zirkulazio-istripu bat *in itinere* edo *misioko* istripu biktimadun gisa erregistra dezan ezaugarri hauek izan behar ditu:

1. Zirkulazio-istripua izan behar du; hau da, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legediaren xede den zirkulazio publikora zabalik dagoen bidean gertatutako istripua.
2. Mugimenduan dabilen ibilgailu bat egongo da tartean gutxienez.
3. Ertzaintzaren jarduera-eremuan, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan, gertatutakoa izango da.
4. Tartean dagoen gidariaren lekualdaketa *bere lanaldiaren barruan izango da edo bere lantokira doan edo lantokitik itzultzen den bitartean*.
5. Istripuan tartean diren pertsonen artean arin edo larri zauritutakoren bat edo hildakoren bat egongo da.

2012. urtean, 1. taulan jasotzen den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean 552 lagunek izan zuten biktimadun zirkulazio-istripua, istripua izandako ibilgailuaren gidaria lantokira zihoanean edo lantokitik zetorrenean gertatutakoa, eta 1.101 lagunek istripua izan zuten lekualdaketa beren lanaldian egiten zutenean. Tartean diren 1.653 horietatik 1.199 lagun gidariak dira eta gainerakoak bidaiariak.

1. taula. EAE-KO ERREPIDEETAKO BIKTIMADUN ZIRKULAZIO ISTRIPUETAN TARTEAN EGONDAKO PERTSONAK (Ertzaintzak erregistratutako istripuak) 2012. URTEA

| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | EAE |
|---------------------------|---|------------|--------------|--------------|--------------|
| BIKTIMADUN ISTRIPUETAN | Beren lanaldian | 141 | 503 | 457 | 1.101 |
| | Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean | 78 | 299 | 175 | 552 |
| | Oporretara joatean edo oporretatik itzultzean | 42 | 1 | 67 | 110 |
| | Irteera edo itzulera zubietan edo jaiegunetan | 20 | 31 | 13 | 64 |
| | Larrialdiak | 0 | 3 | 1 | 4 |
| | Aisialdia | 395 | 1.704 | 1.238 | 3.337 |
| | Bestelakoa | 97 | 498 | 466 | 1.061 |
| | Guztira | 773 | 3.039 | 2.417 | 6.229 |

Lurralde historikoen arabera, % 13 Arabako errepideei dagokie, % 49 Bizkaikoei eta % 38 Gipuzkoakoei.

Beste alde batetik, 2. taulan ikusten denez, Euskal Autonomia Erkidegoan 2012an zehar Ertzaintzak erregistratutako biktimadun zirkulazio-istripu guztien % 26,6 lanarekin loturiko zirkulazio-istripuak dira.

2. taula. EAE-KO ERREPIDEETAKO ZIRKULAZIO ISTRIPUETAN TARTEAN EGONDAKO PERTSONEN EHUNEKOA (Ertzaintzak erregistratutako istripuak) 2012. URTEA.

| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | EAE |
|------------------------|---|--------------|--------------|--------------|--------------|
| BIKTIMADUN ISTRIPUETAN | Beren lanaldian | 18,2 | 16,6 | 18,9 | 17,7 |
| | Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean | 10,1 | 9,8 | 7,2 | 8,9 |
| | Oporretara joatean edo oporretatik itzultzean | 5,4 | ,0 | 2,8 | 1,8 |
| | Irteera edo itzulera zubietan edo jaiegunetan | 2,6 | 1,0 | ,5 | 1,0 |
| | Larrialdiak | ,0 | ,1 | ,0 | ,1 |
| | Aisialdia | 51,1 | 56,1 | 51,2 | 53,6 |
| | Bestelakoa | 12,5 | 16,4 | 19,3 | 17,0 |
| | Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Lurralde historikoak kontuan hartuz, alde batzuk azpimarratu behar dira. Araban dago lanarekin loturiko istripuen ehunekorik handiena (28.3), Bizkaian 26.4 eta Gipuzkoan 26.1.

“Laneko” biktimadun zirkulazio-istripu horien kaltegarritasunari dagokionez, 2012. urtean, 3. taulan jasotzen den bezala, 11 hildako izan ziren, horietako 3 lanaldian gertatutakoak eta 8 in itinere. Zauritu larriak 45 izan ziren, 28 lanaldian eta 17 in itinere; eta zauritu arinak 611, 334 lanaldian gertatutakoak eta 277 in itinere.

Istripu-mota horren kaltegarritasuna zirkulazio-istripu guztien kaltegarritasunarekin alderatuz gero, agerian geratzen da lanaldian edo lantokirako bidean edo bertatik itzuli bitartean hiltzeko edo larri zaurituta gertatzeko probabilitatea zirkulazio-istripu guztietan baino txikiagoa dela.

3. taula. EAE-KO ERREPIDEETAKO IN ITINERE ETA MISIOKO ZIRKULAZIO ISTRIPUETAN TARTEAN EGONDAKO PERTSONEK JASAN DUTEN KALTEGARRITASUNA (Ertzaintzak erregistratutako istripuak) 2012. URTEA.

| | | HILDAKOAK | ZAURITU LARRIAK | ZAURITU ARINAK | BIKTIMAK GUZTIRA |
|---------------|---|-----------|-----------------|----------------|------------------|
| ARABA | Beren lanaldian | 2 | 9 | 53 | 64 |
| | Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean | 0 | 2 | 43 | 45 |
| | Guztira | 2 | 11 | 96 | 109 |
| BIZKAIA | Beren lanaldian | 0 | 9 | 147 | 156 |
| | Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean | 5 | 9 | 149 | 163 |
| | Guztira | 5 | 18 | 296 | 319 |
| GIPUZKOA | Beren lanaldian | 1 | 10 | 134 | 145 |
| | Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean | 3 | 6 | 85 | 94 |
| | Guztira | 4 | 16 | 219 | 239 |
| GUZTIRA EAE-N | Beren lanaldian | 3 | 28 | 334 | 365 |
| | Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean | 8 | 17 | 277 | 302 |
| | Guztira | 11 | 45 | 611 | 667 |

Istripu horietan tartean egoten diren gidari gehienak gizonezkoak dira. Zehazki, 4. taulan ikus daitekeenez, % 80 gizonezkoak dira eta % 20 emakumezkoak. Nahiz eta desoreka hori in itinere istripua izan dutenen kasuan (% 67 gizonezkoak eta % 33 emakumezkoak) arintzen den, beren lanaldian istripua izan dutenen kasuan nabarmen handitzen da, istripua izan duten 10 gidaritik ia 9 gizonezkoak baitira.


Gizonezko gidarien adinari dagokionez, % 54 25 eta 44 urte bitartekoak dira, % 40 45 eta 64 urte bitartekoak eta % 6 baino ez da 25 urtetik beherakoa.

4. taula. EAE-KO ERREPIDEETAKO IN ITINERE ETA MISIOKO ZIRKULAZIO ISTRIPU BIKTIMADUNETAN TARTEAN EGONDAKO GIDARIAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA (Ertzaintzak erregistratutako istripuak). 2012. URTEA.

| | | ADINA | | | |
|---|-------------|-------|-------|-------|---------|
| | | <25 | 25-44 | 45-64 | Guztira |
| Beren lanaldian | Gizonezkoa | 28 | 343 | 284 | 655 |
| | Emakumezkoa | 9 | 57 | 20 | 86 |
| | Guztira | 37 | 400 | 304 | 741 |
| Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean | Gizonezkoa | 28 | 175 | 102 | 305 |
| | Emakumezkoa | 13 | 94 | 46 | 153 |
| | Guztira | 41 | 269 | 148 | 458 |
| IN ITINERE ETA MISIOKO ISTRIPUAK GUZTIRA | Gizonezkoa | 56 | 518 | 386 | 960 |
| | Emakumezkoa | 22 | 151 | 66 | 239 |
| | Guztira | 78 | 669 | 452 | 1.199 |


Emakumezko gidarien adinaren araberrako banaketa desberdin samarra da. % 63 25 eta 44 urte bitartekoak dira, % 28 45 eta 64 urte bitartekoak eta % 9k 25 urte baino gutxiago du.

Normala den moduan, zirkulazio-istripuen banaketa, gidariaren joan-etorrien zioaren arabera, astelehenetik ostiralera egonkor dago, baina larunbatean eta igandean desorekatu egiten da.



Era berean, 2. grafikoan ikusten denez, istripua gertatzen den eguneko unearen araberrako banaketak agerian uzten du in itinere istripu gehienak goizeko 5:00etatik 8:00etara bitartean jazo; baina 14:00ak, 18:00ak eta 22:00ak aldean areagotu egiten direla.

Bestetik, misioko zirkulazio-istripuen kopurua egonkorragoa da 8:00etatik 16:00etara, baina goizeko 9:00ak aldean nabarmen areagotzen dira.



Misioko zirkulazio-istripuetan gidarien % 39k autoa gidatzen zuen eta % 56k kamioia, furgoia edo furgoneta. In itinere istripuetan, ordea, % 86k autoa gidatzen zuen, 5. taulan ikusten denez.

5. taula. EAE-KO ERREPIDEETAKO IN ITINERE ETA MISIOKO ZIRKULAZIO ISTRIPU BIKTIMADUNETAN TARTEAN EGONDAKO GIDARIAK, IBILGAILU MOTAREN ARABERA (Ertzaintzak erregistratutako istripuak). 2012. URTEA.

| | Bidaia-aren zioa | | |
|-------------------------------------|------------------|------------|--------------|
| | MISIOKOAK | IN ITINERE | GUZTIRA |
| Bizikleta | 1 | 4 | 5 |
| Ziklomotorra | 10 | 6 | 16 |
| Motozikleta | 20 | 23 | 43 |
| Autoa | 273 | 390 | 663 |
| Autobusa | 31 | 0 | 31 |
| Kamioia (BGP=<3.500 kg) | 10 | 1 | 11 |
| Kamioia (3.500 kg.< BGP < 6.000kg.) | 35 | 3 | 38 |
| Kamioia (BGP=<6.000kg.) | 64 | 0 | 64 |
| Traktokamioia | 137 | 2 | 139 |
| Furgoia (BGP=<3.500 kg) | 85 | 14 | 99 |
| Furgoia (3.500 kg.< BGP < 6.000kg.) | 1 | 0 | 1 |
| Furgoneta | 62 | 14 | 76 |
| Nekazaritzako traktorea | 7 | 1 | 8 |
| Bestelako ibilgailua | 5 | 0 | 5 |
| Guztira | 741 | 458 | 1.199 |

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko hamar errepidetan -6. taula- istripu horien ia % 50 gertatzen dira, baina guztien gainetik N-634 errepidea (% 10) eta N-1 (% 8) nabarmentzen dira.

Azpimarratzekoa ere bada N-1 errepidean misioko istripuek duten garrantzia.

6. taula. EAE-KO ERREPIDEETAKO IN ITINERE ETA MISIOKO ZIRKULAZIO ISTRIPU BIKTIMADUNETAN TARTEAN EGONDAKO GIDARIAK, ISTRIPUA GERTATU ZEN ERREPIDEAREN ARABERA (Ertzaintzak erregistratutako istripuak). 2012. URTEA.

| | Bidaiaaren zioa | | |
|--------|-----------------|---|---------|
| | Beren lanaldian | Lantokira joatean edo lantokitik itzultzean | Guztira |
| N-634 | 69 | 47 | 116 |
| N-1 | 77 | 24 | 101 |
| A-8 | 43 | 47 | 90 |
| AP-8 | 53 | 21 | 74 |
| GI-636 | 24 | 26 | 50 |
| BI-637 | 15 | 25 | 40 |
| N-240 | 26 | 13 | 39 |
| N-637 | 14 | 19 | 33 |
| GI-632 | 12 | 8 | 20 |
| BI-631 | 9 | 10 | 19 |

Laburbilduz, beren lanaldian zirkulazio-istripua duten eta lantokira doazen edo lantokitik datozen bitartean istripua duten gidarien tipologia deskribatu beharko bagenu, hau izango litzateke:

MISIOKO istripua izan duenaren profila

Kasurik gehienetan gizonezkoa da (% 88), 25 eta 44 urte bitartekoa (% 52). Gidatzen duen ibilgailua autoa (% 37) edo kamioia, furgoia edo furgoneta (% 53) da eta sarri samar (% 9) larri zauritu edo hil egiten da.

Gehienetan istripua 8:00etatik 17:00etarako tartean gertatzen da, astelehenetik ostiralera, eta gainerako ordu eta egunetan istripua izateko probabilitatea asko jaisten da.

Istripu-mota hori gertatzeko probabilitaterik handiena N-1 errepidean dugu; baina kontzentrazioarik handiena duena -hau da, kilometroko istripu-kopurua-A-8 da.

IN ITINERE istripua izan duenaren profila

Kasurik gehienetan gizonezkoa da (% 66), 25 eta 44 urte bitartekoa (% 57). Gidatzen duen ibilgailua autoa da (% 85) eta sarri samar (% 8) larri zauritu edo hil egiten da.


Gehienetan istripua 6:00etatik 9:00etarako tartean gertatzen da, astelehenetik ostiralera, eta gainerako ordu eta egunetan istripua izateko probabilitatea nahiko jaisten da.

Istripu-mota hori gertatzeko probabilitaterik handiena N-634 eta A-8 errepideetan dago.


IN ITINERE ZIRKULAZIO ISTRIPU BIKTIMADUNEN HISTORIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoan zirkulazio-istripu mota horrek azken hamar urteotan izandako bilakaerari dagokionez, azpimarratu behar da istripu orokorren tasaren antzeko joera izan duela.

3. grafikoan ikusten denez, lerroak beheranzko joera argia du hiru lurraldeetan.



Kaltegarritasunari dagokionez, 4. grafikoan agertzen denaren arabera, zauritu arinen kopurua igo da, baina hazkunde hori gertatu da batez ere "zauritu arin" kontzeptuan izandako aldaketengatik eta ez benetako hazkundera egoteagatik. Bestetik, istripu orokorren tasan bezala, hildakoen eta larri zauritutakoen kopurua jaitsi da, baina kontzeptuan 1993tik ez da aldaketarik egin.



Bukatzeko, istripuetan eragina duten faktoreei dagokienez (5. grafikoa), aipagarriena da in itinere istripuetan garrantzitsuenak arreta galtzea eta abiadura desegokia direla eta misioko istripuetan, ordea, karga erortzea.

